Euskal ekoizpen zientifikoaren bilakaera Ingumaren 25 urteen bitartez ikuspegi bibliometriko batetik

Inguma 25 urte Beka

Ikertzailea: Amaia Torrealday Gallarreta
Zuzendaria: Aitor Zuberogotia Espilla
Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2026

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Amaia Torrealday Gallarreta eta Aitor Zuberogoitia Espilla

ISBNa: 978-84-8438-969-9
DOIa: https://dx.doi.org/10.26876/Ekoizpen-zientifikoa.2026

Laguntzailea: Bizkaiko Foru Aldundia



Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak:
UEU. Erribera 14, 1.D Bilbo 946 790 546 argitalpenak@ueu.eus
www.ueu.eus

Aurkibidea

Laburpena **7**

Resum **8**

Crynodeb **9**

1. Sarrera **11**

2. Metodologia **15**

2.1. Bibliometriaren oinarriak, adierazleak eta erabilitako iturriak 15

2.2. Galdetegia 17

2.3. Sakoneko elkarrizketak 20

2.4. Adimen arti izialaren erabilera 22

3. Emaitzak **23**

3.1. Ekoizpen-adierazleak: Inguma 23

3.2. Inpaktu- edo ikusgarritasun-adierazleak: WoS, Scopus eta Dialnet 35

3.3. Lankidetza-adierazleak 53

3.4. Galdetegia eta sakoneko elkarrizketak 59

4. Eztabaida eta ondorioak **65**

5. Taulen aurkibidea **75**

6. Irudien aurkibidea **77**

7. Erreferentzia bibliografikoak **79**

Eranskinak **85**

I eranskina. Google Forms galdetegia 85

II eranskina. Sakoneko elkarrizketen eta galdetegiko erantzunen analisia 86

Laburpena

Txosten honek euskarazko ekoizpen zientifikoaren bilakaera aztertzen du azken 25 urteetan, Inguma datu-basea erreferentzia nagusitzat hartuz eta bibliometria-azterketarako beste iturri batzuekin (Web of Science, Scopus eta Dialnet) osatuz. Euskal komunitate zientifiko-intelektualaren datu-basea da Inguma, eta haren 25. urteurrenean Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) argitaratutako «Ingumak 25 urte» ikerketa-bekaren baitan egindako lanaren emaitza da.

Helburu nagusia bikoitza da: euskarazko ekoizpen zientifikoaren bilakaera historikoa eta haren inpaktu akademikoa deskribatzea, baita lankidetza- eta ikusgarritasun-patroiak identifikatzea ere, euskarazko ezagutzaren ekoizpena eta hedapena indartzeko etorkizuneko aukerak esploratzeaz gain.

Ikerketa metodologia misto baten bidez gauzatu da. Alde batetik, kuantitatiboa, ekoizpenaren, inpaktuaren eta lankidetzaren adierazle bibliometrikoen analisian oinarritua. Horrek ahalbidetu du joerak, banaketa tematikoa eta argitalpen-patroiak identifikatzea. Bestetik, kualitatiboa, beste hizkuntza gutxitu batzuen ekoizpen zientifikoan adituei elkarrizketa sakonak eginez euskararen eta Europako beste hizkuntza gutxitu batzuetako ekoizpen zientifikoaren egoera eta aukerak konparatuz.

Emaitzek erakusten dute Inguma baliabide estrategikoa dela euskarazko zientzia-ekoizpena jasotzeko, neurtzeko eta balioesteko, 48.200 erreferentzia baino gehiago jasotzen baititu. Hala ere, ekoizpen idatziaren beheranzko joera antzematen da. Argitalpen idatzien % 78 giza eta gizarte-zientzien arloan kontzentratzen da, arlo teknikoetan edo osasun-zientzietan presentzia urria izanik. Era berean, egileen eta erakundeen arteko lankidetza-indizeak baxuak dira.

Bestalde, zientziaren ebaluazio-sistemek hizkuntza hegemonikoetan, batez ere ingelesez, argitaratzea bultzatzen dute eta, horrek, murriztu egiten du euskararen eta euskara bezalako hizkuntza gutxituen ikusgarritasuna nazioarteko foroetan eta esparru espezializatuetan, haren normalizazioari kalte egin diezaiokeelarik. Inguma da euskarazko ekoizpena zentralizatzen duen datu-base osatuena, eta garapen batzuekin, hizkuntza horretan ekoitzitako jakintza akademikoa eskuragarri jartzeko ez ezik, euskaraz diharduen komunitate zientifikoa trinkotzeko eta hizkuntza horretako ekoizpena hauspotzeko ere baliabide erreferentziala izan daiteke, ebaluaziorako mota desberdinetako adierazle fidagarriak eskainiz, interoperabilitaterako metadatu aberatsak eta identifikatzaile estandarrak erabiliz eta komunitate akademikoan zein gizartean duen eragina neurtzeko garapenak eginez.

Resum

EAquest informe analitza l'evolució de la producció científica en llengua basca durant els darrers vint-i-cinc anys, prenent com a referència principal la base de dades Inguma i complementant-la amb altres fonts per a l'anàlisi bibliomètrica (Web of Science, Scopus i Dialnet). És el resultat del treball realitzat en el marc de la beca de recerca «Ingumak 25 urte», publicada per la Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), amb motiu del 25è aniversari d'Inguma, base de dades de la comunitat científica i intel·lectual basca.

L'objectiu fonamental és doble: descriure l'evolució històrica de la producció científica en basc i el seu impacte acadèmic, així com identificar patrons de col·laboració i visibilitat, a més d'explorar oportunitats futures per reforçar la producció i la difusió del coneixement en aquesta llengua.

La recerca s'ha dut a terme mitjançant una metodologia mixta. D'una banda, quantitativa, basada en l'anàlisi d'indicadors bibliomètrics de producció, impacte i col·laboració, que ha permès identificar tendències, distribució temàtica i patrons de publicació. De l'altra, qualitativa, a partir d'entrevistes en profunditat amb experts en la producció científica en altres llengües minoritzades d´Europa, per tal de comparar la situació i les perspectives del basc amb les d'aquestes llengües.

Els resultats mostren que Inguma és un recurs estratègic per recopilar, mesurar i valorar la producció científica en basc, ja que conté més de 48.200 referències. Tanmateix, s'hi detecta una tendència descendent en la producció escrita. El 78 % de les publicacions es concentra en l'àmbit de les Ciències Socials i Humanitats, amb una presència reduïda en les disciplines tècniques o en les Ciències de la Salut. Així mateix, els índexs de col·laboració entre autors i institucions són baixos.

D'altra banda, els sistemes d'avaluació científica promouen la publicació en llengües hegemòniques, especialment en anglès, i això redueix la visibilitat del basc i d'altres llengües minoritzades en fòrums internacionals i àmbits especialitzats, la qual cosa pot perjudicar-ne la normalització. Inguma constitueix la base de dades més completa per centralitzar la producció en basc i, amb determinats desenvolupaments, pot esdevenir un recurs de referència no sols per posar a disposició el coneixement acadèmic produït en aquesta llengua, sinó també per consolidar la comunitat científica que treballa en euskera i impulsar la seva producció, oferint indicadors fiables per a l'avaluació, metadades enriquides i identificadors estàndard per a la interoperabilitat, així com mecanismes per mesurar l'impacte tant en la comunitat acadèmica com en la societat.

Crynodeb

Mae'r adroddiad hwn yn dadansoddi esblygiad cynhyrchiad gwyddonol yn y Basgeg dros yr ugain pump mlynedd ddiwethaf, gan gymryd cronfa ddata Inguma fel prif gyfeirnod a'i chyflwyno'n atodol gyda ffynonellau eraill ar gyfer dadansoddiad bibliometrig (Web of Science, Scopus a Dialnet). Canlyniad yw'r gwaith a wnaed o fewn fframwaith y grant ymchwil «Ingumak 25 urte» a gyhoeddwyd gan Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), ar achlysur pen-blwydd yn 25 oed cronfa ddata Inguma o gymuned wyddonolddeallusol y basgiaid.

Y prif nod yw deuol: disgrifio esblygiad hanesyddol cynhyrchiad gwyddonol yn y Basgeg a'i effaith academaidd, yn ogystal ag adnabod patrymau cydweithio ac amlygrwydd, ochr yn ochr ag archwilio cyfleoedd yn y dyfodol i gryfhau cynhyrchiad a lledaeniad gwybodaeth yn yr iaith hon.

Cynhaliwyd yr ymchwil drwy fethodoleg gymysg. Ar un llaw, dull meintiol, wedi'i seilio ar ddadansoddi dangosyddion bibliometrig cynhyrchiad, effaith a chydweithredu, a alluogodd i adnabod tueddiadau, dosbarthiad thematig a phatrymau cyhoeddi. Ar y llaw arall, dull ansoddol, trwy gyfweliadau manwl ag arbenigwyr ar gynhyrchiad gwyddonol mewn ieithoedd lleiafrifol eraill yn Ewrop, er mwyn cymharu sefyllfa a rhagolygon y Fasgeg â'r ieithoedd hynny.

Mae'r canlyniadau'n dangos bod Inguma yn adnodd strategol ar gyfer casglu, mesur a gwerthuso cynhyrchiad gwyddonol yn y Basgeg, gan ei bod yn cynnwys dros 48,200 o gyfeiriadau. Serch hynny, nodir tuedd ddisgynnol mewn cynhyrchiad ysgrifenedig. Mae 78% o'r cyhoeddiadau'n canolbwyntio ym maes y Gwyddorau Cymdeithasol a'r Dyniaethau, gyda phresenoldeb cyfyngedig mewn meysydd technegol neu'r Gwyddorau Iechyd. Yn yr un modd, mae'r mynegrifau cydweithio rhwng awduron a sefydliadau yn isel.

Ar y llaw arall, mae systemau gwerthuso gwyddonol yn hyrwyddo cyhoeddi mewn ieithoedd hegemonig, yn enwedig yn Saesneg, sy'n lleihau gweledded y Fasgeg a'r ieithoedd lleiafrifol eraill mewn fforymau rhyngwladol ac mewn meysydd arbenigol, gan amharu ar eu normaleiddio. Mae Inguma yn cynrychioli'r gronfa ddata fwyaf cyflawn i ganoli cynhyrchiad yn y Fasgeg ac, gyda rhai datblygiadau ychwanegol, gall ddod yn adnodd cyfeirio, nid yn unig i roi gwybodaeth academaidd ar gael yn yr iaith hon, ond hefyd i gryfhau'r gymuned wyddonol sy'n gweithio yn y Fasgeg a hyrwyddo ei chynhyrchiad, gan gynnig dangosyddion dibynadwy ar gyfer gwerthuso, metadata cyfoethog ac adnabodwyr safonol ar gyfer rhyngweithredu, yn ogystal â mecanweithiau i fesur effaith, boed yn y gymuned academaidd neu yn y gymdeithas.

1. Sarrera

Euskarazko ekoizpen zientifikoa aztertu eta berau hedatzeko ahaleginek gero eta interes handiagoa pizten dute komunitate zientifikoaren aldetik (Artetxe, 2010; Artetxe, 2011; Barcenilla & Vivas, 2017; Boillos & Bereziartua, 2020; Agirre, 2021; Astigarraga *et al*., 2025; Idoiaga *et al*., 2025). Azken hamarkadetan egindako ahalegin horiek, izan baliabide terminologikoak garatzen, izan argitalpen-plataformak sustatzen, izan euskarazko aldizkari zientifikoak diruz laguntzen, euskararen bidezko ikerketa sustatu nahi izan dute. Hala ere, oraindik ez dago azterketa sistematiko aski euskarazko jakintza zientifikoaren bilakaera eta inpaktu akademikoa bere osotasunean ulertu eta etorkizuneko aukerak irudikatzeko. Hutsune hori are nabarmenago da egun, indarrean diren ikerketaren ebaluazio-sistemek ikertzaileak euren ikerketak erdaraz (gaztelaniaz, frantsesez eta, batez ere, ingelesez) eta aldizkari jakin batzuetara bideratuta plazaratzera bultzatzen dituzten garaiotan (Larrinaga 2017; Boillos & Bereziartua, 2020; Agirre 2021; Barron, 2025).

Kinka horretan, lan honek ikuspegi konbinatu batetik heldu dio auzi horri, diziplina-aniztasunetik eta ikuspegi kritikoz, ekoizpen zientifikoa ezagutza sortzeko eta komunitateak eraikitzeko tresna gisa ulertuta. Ikerketa honen helburu nagusiak lau dira:

1. Euskarazko komunitate zientifikoa trinkotzea xede duen Inguma datu-baseko informazioan ardaztuta, euskarazko ekoizpen zientifikoaren bilakaera historikoa aztertzea azken 25 urteetan.
2. Ekoizpen horren eragina neurtzea, erreferentzialtasun eta zirkulazio akademikoari dagokionez.
3. Ikertzaileen eta diziplinen arteko lankidetza-patroiak identifikatzea.
4. Euskarazko jakintzaren ekoizpena eta hedapena indartzeko etorkizuneko aukerak esploratzea.

Horretarako, metodologia mistoa erabili da:

- Inguma datu-basearen bibliometria-azterketa egin da, Web of Science, Scopus eta Dialnet datu-baseekin osatua.
- Horrekin batera, alde batetik, galdetegi kualitatibo bat diseinatu da eta bidali zaie Euskal Herriko unibertsitateetako eta ikerketa-erakundeetako euskara- eta argitalpen-arduradunei, eta, bestetik, Europa mendebaldeko

beste hizkuntza gutxitu batzuen (katalana eta galesa) ekoizpen zientifikoarekin egindako konparaziozko elkarrizketa sakonak egin dira Llorenç Arguimbau Vivó eta Elin Haf Gruffydd Jones adituekin, hurrenez hurren.

Metodologia konbinatu honek aukera eman du ikuspegi zabala eta kritikoa eskaintzeko bai Ingumaren azken 25 urteotako bilakaeraz, bai euskarazko jakintza zientifikoaren gaur egungo egoeraz eta erronkez.

Ekoizpen zientifikoaren hizkuntza-dimentsioa gaur egungo ikerketa zientifikoaren antolaketaren erdigunean dago. Ingelesaren nagusitasuna komunikazio akademikoaren eremu ia guztietan finkatu da, eta ondorio nabarmenak ditu hizkuntza gutxituentzat. Carli eta Ammonen (2007) lanak desoreka horren ondorioak azpimarratzen ditu, adieraziz zientzia ekoizteko eta partekatzeko gaitasunak ez direla berdintasunean garatzen mundu zabalean. Hizkuntza-desberdintasun horrek ezagutza globalerako sarbidea baldintzatzen du, hizkuntza-komunitate txikietako zientzialarien parte-hartzea mugatuz (Ammon, 2012). Globalizazioak eta ikerketaren ebaluazio-sistemek ingelesezko argitalpenen nagusitasuna areagotu dute, tokiko hizkuntzetako ekoizpenak bigarren mailan utziz (Plo Alastrué, 2015).

Ingelesezko hegemonia honek eragin handia du hizkuntza minorizatuetan, zeinek zailtasun bereziak baitituzte zientziaren komunikazio-sisteman tokia aurkitzeko. Giménezek (2024) salatzen du ikerketa-sistemek gutxitan aitortzen dutela aniztasun linguistikoaren balioa, eta Vilak (2021) diglosia zientifikoaren kontzeptua erabiltzen du errealitate hori azaltzeko. Van Weijenek (2012) erakutsi du zientzia «gogorreko» arloetan ingelesez argitaratzeko joera nagusitzen dela, eta gizarte-zientzietan edo arte eta humanitateetan hizkuntza lokalek aukera gehiago dituztela. Hala ere, aldizkari zientifiko nagusiek ez dituzte hizkuntza gutxituak kontuan hartzen, eta horrek ekoizpen akademikoaren bazterketa dakar (Grange, 2024).

Euskararen kasuan, azken hamarkadetan komunitate zientifiko euskalduna sendotzeko ahaleginak egin dira. Artetxek (2010, 2011) komunitate zientifikoaren sorrera eta bilakaera aztertu ditu, eta Agirrek (2021) Inguma datu-basean oinarrituta 41 aldizkari identifikatu ditu. Idoiaga *et al.*ek (2025) adierazi dute, euskal ikertzaile askok hizkuntza nagusiak aukeratzen dituztela errekonozimendu handiagoa lortzeko, eta hizkuntza gutxituek pisu handiagoa behar dutela ezagutzaren hedapenean. Larrinagak (2017) euskarazko ekoizpen zientifikoak «gogoeta serio bat abiatzea, unibertsitateetan eta unibertsitateetatik kanpo» merezi duela azpimarratzen duen bitartean, arlo akademiko-zientifikoan euskarazko corpusa elikatu beharra premia estrategikotzat jotzen du Barronek

(2025), terminologia espezifikoak garatzeko bide modura. Madinabeitia *et al*.ek (2018, 61. or.) ere jasotzen dute hori Euskal Unibertsitate Sistemak gizarteari egindako ekarpena aztertzean: «Nazioarteko ikerkuntzan eta nazioarteko agenda ofizialetako gaietan jarritako lehentasunak baztertu egin ditu ikertzaileen ikerketa-interesetatik nazioartean salgarriak ez diren gaiak». Eta gai eta jakintza horietako asko euskal gizartearen interesekin lotutakoak dira, euskaraz sortutako argitalpenak bazterturik geratzeko arriskua sortuz, horrek euskal kulturaren garapenari eragin diezaiokeen kaltearekin.

Testuinguru horretan, erreminta garrantzitsua da Inguma datu-basea. Inguma da euskarazko ekoizpen zientifikoa sistematikoki jasotzen duen tresna nagusia. Udako Euskal Unibertsitateak 2000. urtean sortua, euskarazko jakintza-ekoizpena katalogatzeko eta ikusgarri egiteko helburua du. Ingumak 1968tik gaur arteko ekoizpen zientifikoaren bilakaera eskaintzen du, eta giza eta gizarte-zientzietatik hasi eta zientzia zehatzetara arteko arloak biltzen ditu.

25 urteko ibilbidean funtsezko baliabidea da euskarazko ekoizpen zientifikoa biltzeko eta zabaltzeko eta euskarazko zientzia-ekoizpena eta komunitate zientifikoaren osaketa aztertzeko ikerketarako baliabide estrategiko bihurtu da.

Erreferentziazko iturri ere ari da bihurtzen, euskarazko ekoizpena neurtzeko adierazle estandarizatuak eskaintzen dituelako. Eusko Jaurlaritzaren Programa-Kontratuetan[1] eta Euskararen Adierazle Sisteman (EAS)[2] erabiltzen da, unibertsitateek aurkeztutako datuekin:

- Programa-Kontratuak. Programa hauen xedea da urtero informatzea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen artean sinatutako programa-kontratuen betetze-mailari buruz.

  Programa hauen adierazleen artean «Euskarazko argitalpenak (Inguma)» dago. Unibertsitateek Eusko Jaurlaritzari Ingumaren ziurtagiri ofiziala aurkezten diote, erakundearen izenean —egileek beren afiliazioetan adierazitako erakundea izanik— euskaraz sortutako ekoizpen zientifiko-kulturalaren erregistroarekin.

- Euskararen Adierazle Sistema (EAS). Euskarazko produkzio zientifikoaren adierazleak emateko akordio bat lortu du Ingumak EASrekin. Unibertsitateekin adostuta eta etorkizunean gehiago garatu eta osatuago bihurtzeko asmoarekin, lehen urrats bat ematea lortu da.

1. https://www.unibasq.eus/eu/programa-kontratuak/
2. https://www.euskadi.eus/web01-a1eas/eu/eusadierazle/feedbackV1.apl?idioma=e

Hiru adierazle sortu dira:

1. Euskarazko doktorego-tesiak, unibertsitatearen, jakintza-arloaren eta egilearen sexuaren arabera.
2. Ekoizpen zientifikoa euskaraz, ekoizpen motaren eta jakintza-arloaren arabera.
3. Euskarazko artikulu zientifikoetako egileen sexua, jakintza-arloaren arabera (%).

Horri esker, Inguma euskarazko ekoizpena neurtzeko tresna fidagarri eta funtsezko gisa sendotzen ari da.